



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 184. INFORMAZIO BULETINA

> 2023ko martxo



Europar Batasunak  
kofinantzatua

Cofinanciado por  
la Union Europea



> 2023ko martxoa

## ALBISTEAK

### **POCTEFA 2021-2027 programa europarra aurkeztu da.**

**Programa honek Pirinioetako mugaren inguruko lurralde historiko, erkidego, departamentu eta estatu ezberdinetako eragileen lankidetzazko proiektuetan inbertituko du.**

Eusko Jaurlaritzak aurkeztu ditu aldi horretako berrikuntzak, lehentasunak eta proposamenak, eta 243 milioiko zuzkidura. Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Programa Eragilea (POCTEFA), Interreg VI-A kodearekin ezaguna dena EBko mugaz gaindiko programen testuinguruan, Europako Batzordeak onartu zuen azaroan, eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik datorren finantzaketa bideratzen du.

Proiektuetarako laguntzen lehen deialdia (95,4 milioi eurokoa eta martxoaren 9an ireki dena) eta kudeaketa-sistema berria (SIGEFA) ere aurkeztu dira. SIGEFA 2021-2027 plataforma ez dago eskuragarri gaur egun. Gasteizko ekitaldian ehunka pertsona izan ziren, programaren agintaritza kudeatzailean inplikaturako administrazioen ordezkariak barne, Pirinioetako Lan Elkartekoak hain zuzen ere.

Programaren lehentasun, helburu politiko eta espezifikoa eskema ondoko dokumentuan jasotze da: [Eskema](#) (pdf).

Informazio gehiago: [POCTEFA](#)rako esteka (gaztelaniaz).

### **Eskualde Garapeneko Europako Funtsetan Euskadirako 2021-2027 Programa abiaraztea.**

**Martxoaren 15ean, programa abiarazteko ekitaldi publikoa egin da Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan.**

Ekitaldi horretan aitortu da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek Ekonomia eta Europako Funtsetako Sailburuordetzako lantaldearekin batera programa horren plangintzan eta prestaketan egindako lana.

Programa Europako Batzordearen zerbitzuek onartutako Estatuko lehen hiruretako bat izan zen, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien kontura 414 milioi euroko inbertsioak egiteko aukera emango du Euskadin, Europar Batasunak % 40an finantzatuta.

**Programa** horren % 35 enpresen I+G+Bn inbertituko du; % 10 gobernu elektronikoko aplikazioetan; % 7 energia-eraginkortasuna hobetzeko eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko; % 18 kontingentzia



> 2023ko martxoa

naturalen aurkako defentsa-jardueretan (uholdeak, suteak, klima-aldaketa...); % 4 masa hidrikoak zaintzeko; % 8 ekosistema naturalak berreskuratzeko, eta % 14 mugikortasun berritzaile edo ekologikoko proiektuetan, hala nola Bus Elektriko Adimendunean edo bizikletentzako azpiegituretan.

Era berean, abiarazte ekitaldiaren aurretik, programaren Jarraipen Batzordea eratu zen. Bertan, Europako Batzordearen, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien erakundeen ordezkariak parte hartu zuten, bestelako gizarte eragileekin batera.

Informazio gehiago: [Prentsa oharra](#) (PDF)

## **Europar Batasunaren Egitura Funtsetan Berdintasunari buruzko Erakundearteko Lantalde teknikoaren bilera.**

**Bilera horretara Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko ordezkariak bertaratu ziren.**

Joan den martxoaren 22an, Europar Batasunaren Egitura Funtsetan Berdintasunari buruzko Erakundearteko Lantalde teknikoaren bilera egin zen Emakunderen egoitzan. Bertan, 2022an egindakoaren balantzea egin zen, eta 2023an berdintasunaren arloan egin beharreko erronka nagusiak eta ibilbide-orria aztertu ziren, lan-planaren arabera.

Bestalde, Emakundek, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan eskaintzen duen aholkularitza-zerbitzuari buruzko informazioa eman zen. Zerbitzu honen helburua da kontratazio publikoaren eremuan genero ikuspegia txertatzeko laguntza ematea, kontuan izanda Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken aldaketak. EAEko erakunde publikoei zein pribatuei zuzenduta dago eta dohainik da. Posta elektronikoko bidez egindako kontsulta zehatzak erantzungo dira, 2 egun balioduneko epean.

Lantalde Teknikoa 2015ean sortu zen. Horren helburu nagusia da, Emakunderen bultzadarekin, Europako funtsekin kofinantzatutako EAEko programetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren estrategia indartzea. 2021-2027 programazio-aldian, FEDER, FSE+, FEMPA eta FEADER funtsetan du eragina taldeak. Bilera horietara egiturazko funtsen programen koordinazioan eta kudeaketan parte hartzen duten erakundeetako ordezkariak (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) eta erakunde horietako berdintasun-organoak joaten dira.

Informazio gehiago: [Aholkularitza zerbitzurako esteka](#)



> 2023ko martxoa

## Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) ibai-ibilguak lehengoratzeko lanak finantzatuko ditu 2021-2027 aldian, 800.000 euroekin.

**Jarduera horietarako aurreikusitako inbertsioa 2 milioi eurokoa da, eta horietatik % 40 EGEF funtsak finantzatuko du. Proiektuak Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak gauzatuko ditu, eta bere helburua da espezieei migratzea eragozten dieten oztopoak eraistea.**

2022ko azaroaren 29an onartu zen EGEFen Euskadirako 2021-2027 Programa. Euskal administrazioek Europako Batzordearen helburu politikoeekin bat zetozen proiektuak eta dirulaguntzak txertatu zituzten bertan. Gipuzkoako Foru Aldundiak Programaren 16,6 milioi euro jaso ahal izango ditu guztira 40,1 milioiko inbertsioa egiteagatik. Horretarako, Europar Batasuneko erregelamenduetan baimendutako 5 helburu politikoeetatik (HP) 2tan bildu ditu jarduerak: HP1ean, Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa lortzekoan, eta HP2an, Europa berdeagoa eta karbono gutxiagoren isurtzaile izatera bideratutakoa.

HP2an jasotako helburu espezifikoetako bat honako hau da: hiri-eremuetan ere natura, biodibertsitatea eta azpiegitura ekologikoak (edo berdeak) babestea eta sustatzea, eta kutsadura mota oro murriztea. Helburu espezifiko horretan sartzen dira Oztupoak Iragazkortzeko 2020-2035 Plan Zuzentzailea osatzen duten jarduketak, hau baita beren esparrua erakundearen barne-plangintzan. Ibai-ibilguen morfologia-lehengoratzek hainbat jarduera-eremu hartzen ditu barnean, baina horien artean nabarmentzekoa da gure lurraldean Gipuzkoako ibaietan errolatutako 800 ibai-oztopoen iragazkortasuna, horiek eragozten baitute arrain-espezieen mugikortasun askea eta haien migrazio-mugimenduak. Hainbat azterlanek aztertu dute eragin hori, eta, hori murrizteko, fauna igarotzeko eraispenak, dikeak, arrapalak edo eskalak egin dira.

Ibaiak Leheneratzeko Obrak aplikazioaren bidez, 2000tik Aldundiaren partaidetzarekin egindako mota horretako jarduera guztiak zehazten dira. Haren behaketa tresnak aukera ematen du esku-hartze horietako bakoitzaren laburpen-fitxa bat banaka kontsultatzeko.

Obra hidraulietako Zuzendaritzaren web guneak 2000.urtetik aurrera egindako mota horretako jarduera guztiak zehazten ditu, eta **behaketa tresna** bat dauka esku-hartze horietako bakoitzaren laburpen-fitxa bat banaka kontsultatzeko

Informazio gehiago: [2020-2035rako Oztupoak Iragazkortzeko Plan Zuzentzailea](#).



> 2023ko martxoa

## EUROPAKO DEIALDIAK

### **NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK**

Aldatu egiten da ICT/950/2021 Agindua, irailaren 10ekoa, landa-eremuetako merkataritza-jarduera babesteko laguntza-lerroen oinarri arautzaileak ezartzen dituen, eta deialdia egiten duena 2021. urtean, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

2023rako deialdia egin da turismo-eremuetan merkataritza-jarduera indartzeko laguntza-lerrorako. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko apirilaren 14an amaituko da.

2023. urterako, PRTRren esparruan, merkatuei, hirigune komertzialei, merkataritza ez-sedentarioari eta merkaturatze-bide laburrei laguntzeko laguntza-lerrorako deialdia egiten da. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko apirilaren 14an amaituko da.

2023rako deialdia egiten da landa-eremuetan merkataritza-jarduera babesteko laguntza-lerrorako. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko apirilaren 14an amaituko da.

Tokiko lurralde-erakundeei eta lurralde-erakundeen mendeko erakunde publikoei laguntzak emateko deialdia egiten da, prestakuntza irekia, malgua eta urrutikoa emateko gelak sor ditzaten, Mentore Gelaren bidez, Leheneratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko maiatzaren 9an amaituko da.

Berrogei urtetik gorako antzinasuna duten dokumentu-ondarea duten erakunde, elkarte politiko, sindikal edo erlijiosoen artxiboak deskribatzeko eta digitalizatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira, bai eta ikastetxe publikoenak,



> 2023ko martxo

**unibertsitate publikoenak, eta erakunde, fundazio, kultura- eta hezkuntza-elkarteenak ere, eta 2023ko deialdia onartzen da, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.** Eskabideak aurkezteko epea 2023ko apirilaren 20ko 14:00etan amaituko da.

***“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea***